

## LANA SEXUAREN ARABERA BANATUTA, PREKARIETATEA BERMATUTA.

Soldaten arteko alde, lanaldi partzialeko kontratuak, zaintza-lanak, etxeko lana, behin-behinekotasuna, beirazko sabaiak, segregazio horizontala, haurdunaldiak, diskriminazioa...

Inoiz gertatu al zaizu horrelakorik eta emakumea zara? Bada, ez da txiripaz gertatu. Lana sexuen arabera banatzen da: lan feminizatuak balio gutxiagokoak dira, lan maskulinizatuak baino, gizarte-iriztiaren eta ordainen arabera. Tresnak ekoiztea gehiago baloratzen da, pertsonak zaintzea baino, edo etxeak garbitzea baino.

Hortaz, lan-merkatuan eta hortik kanpo ere dagoen emakume eta gizonen arteko egitura-desberdintasunak betiko bermatzen du prekariedadea.

Azkenaldi honetan jendarte osora hedatu da prekariedade hitzaren esangura, baina ELAtik gogora ekarri nahi dugu emakumeek beti egin behar izan diotela aurre prekariedadeari, batzuetan errealitate hori ikusgai egon ez bada ere. Mariberen, Ainhoaren eta Irantzuren testigantzak oso baliozkoak dira borroka horiek denon aurrean jartzeko, haien lantokietan eta lantokitik kanpo.

ELAk tresna erabilgarria izan nahi du borroka honetan.

**Gora emakumeon borroka!**

## LA DIVISIÓN SEXUAL DEL TRABAJO SELLA LA PRECARIEDAD.

Brecha salarial, contratos a tiempo parcial, trabajo de cuidados, trabajo doméstico, temporalidad, techos de cristal, segregación horizontal, embarazos, discriminación...

¿Alguna vez te ha pasado y eres mujer? Pues no es casualidad. El trabajo se sigue dividiendo sexualmente: los trabajos feminizados valen menos social y económicamente que los denominados como trabajos masculinizados. Fabricar herramientas vale más que cuidar personas o limpiar casas o edificios.

Así, la desigualdad estructural de base entre mujeres y hombres en el mercado laboral y fuera de él sella la precariedad.

En estos momentos en el que la palabra precariedad es general en toda la sociedad, desde ELA queremos recordar que las mujeres han hecho frente a la precariedad durante toda la vida, aunque a veces no se reconozca ni visibilice en su justa medida. Los testimonios de Maribe, Ainhoa e Iranzu ponen luz a estas luchas, tanto dentro como fuera de su trabajo.

ELA quiere ser un instrumento útil en este camino.

**Gora emakumeon borroka!**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

EUSKAL SINDIKATUA  
**ELA**

**GEHIAGO BALIQ DUZU**  
TRABAJO DIGNO PARA UNA VIDA DIGNA **♀** TÚ VALES MÁS

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

Iranzu  
Zorzabalbere López

## BM SUPERMERTATU KATEA



## “HAU PREKARIETATEAREN EREMU BASATIA DA, ETA BIZITZA ETA LANA UZTARTZEKO MALABARISMOAK EGIN BEHAR DITUGU”.

Iranzuk BM supermerkatu-katean lan egiten du. Enpresa-ituna lortu zuten 2011.urtean eta horri esker hobekuntza batzuk ere bai. Dena den, lan-harremanen prekarizazioak enpresan, eta baita sektorean ere, aurrera darrai; batez ere, aldi baterako langileen kasuan. Sektorea gehienbat feminizaturik dago, eta hortaz soldatak baxuak dira (sarritan soldata nagusi baten osagarri), prestakuntzak urriak, eta zailtasunak ugariak -lana eta familia edota bizitza pertsonala uztartu ahal izateko-.

- **Soldata:** 1.000 euro hilean gutxi gora behera (antzinatasuna kontuan hartuz).
- **Lanaldia:** osoa.
- **Behin-behinekotasuna:** %20.
- **Etxeko eta zaintza-lanak:** 4-5 ordu egunean.

**Elikadura sektorean, supermerkatuetan, zaila da etorkizun duina eta kalitatezkoa lantzea, orain dauden lan-baldintza prekarioak ikusirik (soldata baxuak, ordutegi bateraezinak, prestakuntza falta, etab), baina antolakuntzak eta borroka sindikalak aurrera jarraitzen dute sektore feminizatu horretan. Aipatzekoa da, bestelako eragile sozialekin batera, daramaten borroka merkataritza-ordutegien liberalizazioaren eta igandeetako irekieren aurka.**

*Las luchas sindicales, llevadas a cabo en los últimos años en el sector del comercio y de los supermercados en contra de la flexibilización de los horarios y la no apertura los domingos, han puesto en cuestión el modelo de sociedad que vivimos actualmente: el modelo de consumo, la no conciliación entre la vida laboral, familiar y personal, los problemas del pequeño comercio, etc.*

Begoña  
Cermeño Argüello

## ETXEKIDE SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO (SAD)



## “PIERDO DINERO YENDO A TRABAJAR”

Maribe ha trabajado durante doce años en una empresa privada de ayuda a domicilio, Etxekide. Durante estos años, la precariedad laboral ha sido parte de su vida, así ha podido comprobar cómo se vulneraban sus derechos sociales y laborales más básicos sin ningún tipo de fiscalización o control. El servicio de ayuda a domicilio (SAD) se caracteriza por ser un sector feminizado, y en el caso de Etxekide, esta empresa cuenta con una presencia mayoritaria de mujeres migrantes. Actualmente esta empresa se encuentra en proceso concursal.

- **Salario:** 400 euros mensuales.
- **Jornada:** parcial sin horario fijo.
- **Eventualidad:** la mayoría son indefinidas en la empresa.
- **Trabajo doméstico y de cuidados:** 9 horas diarias.

**Parece que los trabajos de cuidado y de reproducción social, imprescindibles para el sostenimiento de la vida, no llegan a la categoría de ser reconocidos, ni social, ni económicamente. Se consideran como una extensión de los trabajos realizados mayoritariamente por las mujeres, trabajos de casa de toda la vida.**

*Etxez etxeko lanak ez du behar besteko esker onik jasotzen, ez ekonomikorik, ezta sozialik ere. Emakumeen “betiko eta berezko” lanak bezala hartzen dira, eta horren isla soldata baxu eta lan-baldintza prekarioetan ikusten da. Paradoxikoki, giza biziaren iraupenerako guztiz beharrezkoak diren zaintza-lanak egiten dituzte, lan-merkatuan eta baita lan-merkatutik kanpo ere.*

Ainhoa Aranegi  
Balziskueta

## LANALDEN TELEMARKETING



## “KALEKO JENDEAK ENPRESA HANDIENTZAT LAN EGITEN DUGULA USTE DU. JAKINGO BALUTE NOLA EGITEN DUGUN LAN...”

Ainhoak Lanalden telemarketing enpresan lanean dihardu 2000.urteetik. Enpresa horrek Kutxabank, Euskaltel, Fagor, 010, 112, SOS Deiak, edota Natur Gas bezalako enpresei eta erakundeei ematen die zerbitzua. Sektorean %90ak emakumeak dira. Azpikontratazioan eta prekarietatean aitzindariak dira. 900 euroko soldatak; ez omen dute formakuntzarik behar, zerbitzu tekniko eta profesionalak ematen badituzte ere; 365 egunetan lan egiten dute ordutegi amaigabeekin, igandeetan ere bai; ez da kontziliazio neurririk errespetatzen...

- **Soldata:** 900 euro lanaldi osoan.
- **Lan jardunaldia:** osoa.
- **Behin-behikotasuna:** %60a enpresan.
- **Zaintza eta etxeko lanak:** 2-3 ordu egunean.

**Telemarketinga bogan dagoen lan sektore feminizatua izanda ere, ez dauka behar bezalako aitorpenik. Enpresa handien azpikontratak dira, eta normalean kontsumitzaileek edo zerbitzu hauen erabiltzaileek uste dute enpresa handietako langileak direla. Enpresa handiek edo jatorrizko enpresek eskuak garbitzen dituzte, eta azpikontratak bitartean lan-merkatu horren prekarizazioaz eta esplotazioaz baliatzen dira.**

*Grandes empresas como Kutxabank, Euskaltel, Fagor, 010, 112, SOS Deiak, o Natur Gas subcontratan servicios de telemarketing obteniendo grandes beneficios a costa de la liquidación de los derechos laborales de las/os trabajadoras/es de las empresas subcontratadas. Sector feminizado en el que, a la vez que aumentan los tipos de servicios, se precarizan las condiciones laborales.*